

Ikuspegi postestrukturalistak (postmodernistak)

9.1. Sarrera

Postestrukturalismoa indarrez sartu da gizarte-zientzia guztietan, besteak beste marxismoaren krisiak bultzatuta (ideologia horretatik datoz korronte honetako egile asko). Laurogeiko hamarkadaren amaieran heldu zen NHen arlora, beste korronte postpositibista²²² batzuetara baino georoago, eta asko hazi da ordutik. Korronte benetan askotarikoa eta heterogeneoa da, egile eta ikuspegi asko ditu²²³, ez dago eskolatan egituratuta eta ez ditu ezaugarri komun asko; hori dela eta, zaila da ezaugarri konkretuak zehaztea. Hain zuzen ere, korrontearen ezaugarrietako bat da teoria bateratu eta integratua sortzeko helburua baztertzen duela.

²²² Hau izan zen joera postestrukturalista garbiko lehenengo obra, korrontearen ordezkari nagusietako bik argitaratua: DER DERIAN, James eta Michael SHAPIRO (arg.) (1989), *International/Intertextual Relations. Postmodern Readings of World Politics*, Lexington Books, Lexington (Erresuma Batua). Baina korrontea diziplinan sartzea eta haren profilak zehaztea gehien bultzatu zuena hau izan zen: ASHLEY, Richard eta Robert B. J. WALKER (arg.) (1990), *Speaking the Language of Exile: Dissidence in International Studies*, *International Studies Quarterly* aldizkarian, 34. lib., 4. zk., 259.-268. or.

Korrontearen deskribapen orokorra, in DEVETAK, Richard (2009), «Postmodernism», in BURCHILL, Scott eta Andrew LINKLATER (arg.), *Theories of International Relations*, St. Martin's Press (4. argit.), New York, 2009, 179.-209. or.; EDKINS, (2007), «Poststructuralism», in GRIFFITHS, Martin (arg.), *International Relations for the Twenty-First Century: An Introduction*, Routledge, Londres, 88.-99. or.; eta BERNAGO, Noé (2015), «Introducción al postestructuralismo para internacionalistas», in BERNAL, Celestino del eta José Antonio SANAHUJA, *Teorías de las Relaciones Internacionales*, Tecnos, Madril, 220.-241. or.

Izendapenari buruzko bi ñabardura. Hasteko, egile askok postestrukturalismoari *postmodernismo* ere esaten diote sarritan; izan ere, jatorrian zenbait desberdintasun dituzten arren, oinarritzko ezaugarri berak dituzte. Printzipioz, postmodernismoak Modernismoko balioak eta Ilustrazioaren proiektua ukatzen ditu azken bi mendeetako Mendebaldeko pentsamenduaren funtsezko diskurtso modura, gizateria emantzipatuko zutela agindu zuten arren, egiaz zapalkuntza eta gizatasuna kentzea ekarri dutelako. Bestalde, postestrukturalismoak mintzairaren funtzioa aztertzea du bereizgarri: nola gizarte-esanahiak eta horiekiko inkonformismoa hizkuntzaren bidez sortzen diren. Alabaina, postmodernismoak eta postestrukturalismoak oinarritzko ezaugarri berberak dituzte: metakontakizun handi bateratuak eta unibertsalistak arbuatzen dituzte, eta botere-harreman menderatzaileak eta ezarritako gizarte-harremanak kritikatzten.

Bigarren ñabardura: *postestrukturalismo* izena ez da korronte estrukturalista gainditzeari buruz ari; lehenago aipatutako korronte hori 60ko hamarkadan sortu zen ekonomian edo NHetan, eta munduko sistema ekonomikoaren egitura aztertzean jartzen zuen arreta. Aldiz, postestrukturalismoak Frantziako zenbait filosofoen lanetan du jatorria: Michel Foucault, François Lyotard eta Jacques Derrida dira horietako batzuk. Filosofook 60ko hamarkadatik estrukturalismo teorikoa errefusatu zuten, zeina teoria nagusia izan baitzen denbora luzez zenbait giza eta gizarte-arloko diziplinatan; esaterako, antropologian (Levi-Strauss), soziologian (Parsons) eta, batez ere, linguistikian. Hain zuzen ere, estrukturalismo teoriko horrek oinarri hartu zuen Ferdinand de Saussure hizkuntzalariak XX. mendearen hasieran sortutako estrukturalismo linguistikoa; horren arabera, hizkuntza da *sistema* bat, zeina elkarrekiko mendekotasuna duten zenbait elementuk eratzen baitute, *egitura* bat osatuz. Hizkuntzalaritza estrukturalistaren helburua zen testuak horien egituratik abiatuta aztertzea; aldiz, postestrukturalismoak testuak interpretatu nahi ditu, egituraz ahaztuta, haien esanahia etengabe aldatzen delako eta interpretazio asko izan ditzakeelako (hau da, jariakorra, zehaztugabea eta zalantzakoa da).

Hala, postestrukturalismoaren ezaugarri nagusia edozein metakontakizunekiko mesfidantza da (esaterako, aurrerapena, emantzipazioa, etab.); hau da, zalantzan jartzen ditu egiazko direla aldarrikatzen duten azalpenak, errealitatearen interpretazio koherentea eta objektiboa eman nahi dutenak, errealitateak interpretazio partikular asko izan baititzake korronte honen arabera. Ezagutza ez da objektiboa eta agerikoa, subjektiboa eta sortutakoa baizik, zenbait faktoretan oinarrituta, hala nola norberak egiari buruz lehendik dituen usteetan eta, bereziki, boterean daudenek egiari buruz dituzten ikuspegietan. Hain zuzen ere, errealitateari eta ezagutzari buruz testuinguru jakin batean egiazko modura azaltzen diren azalpenak

botereak bere interesak mantentzeko emandako diskurtso²²⁴ pribilegiatuak dira; aldiz, horiekiko kritikoak diren beste diskurtso batzuk bazterten eta isilarazten ditu. Hala, postestrukturalismoaren ustez ezin dira teoria ustez unibertsalak edo egiazkoak egin errealitatea azaltzeko; horrenbestez, mundua esperimintatzeko eta interpretatzeko askotariko moduak aztertzen ditu. Horregatik, arreta *alteritatean* jartzen du, hots, ikuspegi desberdin, urratzaile eta disidenteetan.

Diskurtsoari lotutako auziak lehenesten dituenek, arreta handia jartzen du hizkuntzaren rolean.

Azken finean, postestrukturalismoaren bibliografia ez da auzi enpirikoek edo gobernu-politiken aholkularitzaz arduratzen, auzi teorikoak aztertzeaz baizik, eta sakontasun intelektual handiz egiten du, gainera. Berezi, etengabe kritikatzeko mota guztietako diskurtsoak (politikan, kulturalan, komunikabideetan, eta abarretan), zalantzan jartzeko munduaren gainean dugun ikuspegiak oinarri hartzen dituen uste nagusiak, eta agerian jartzeko ikuspegi hori baldintzatzen duten faktoreak eta botereharremanak. Hala, seguruenik postestrukturalismoa da NHen teoria hegemonikoaren oinarriak eta diskurtsoak modu erradikal, zorrotz eta probokatzailenean kritikatzeko dituen korrante postpositibista. Berezi, errealismoa kritikatzeko du eta zalantzan jartzen, gizarte-ordena errepikatzea eragiten duen ezagutza sortzen baitu. Esku artean dugun korranteak, kritika erradikala egiten duenez, talka egiten du NHen gainerako joera teoriko guztiekin maila ontologikoan, epistemologikoan eta metodologikoan.

9.2. Ezaugarri ontologikoak eta epistemologikoak

Ikuspegi ontologikotik, postestrukturalismoa erabat idealista da, horren ustez ez baitago «mundu erreal» eta objektiborik, munduari buruzko askotariko interpretazioak eta ikuspegi subjektiboak baizik: errealitatea ezin da hari buruz dugun diskurtsoetik bananduta ulertu, hots, ezin dira alde batera utzi behatzen duenaren adimena, ikuspegiak eta aurreiritziak. Ildo horretan, mundua esanahiak eta balioak sortzen dituzten «testuz» edo diskurtsoz osatuta dago.

Ikuspegi epistemologikotik, *antifundazionalismoa* du ezaugarri; hau da, ez du sinesten «mundu erreal» modu inpartzial, independente edo zientifikoa ezagutzeko gutxieneko oinarriak daudenik. Ezagutza pertsona

²²⁴ *Diskurtso* kontzeptua zentzu zabalean ulertzen da: ez da soilik hizkuntzaz ari; aitzitik, barne hartzen ditu esanahi jakin batzuekin lotutako ideiak, arauak, gizarte-jardunbideak, erakundeak, etab.

bakoitzaren interpretazio subjektiboen ondorioa da, norberaren esperientziaren eta jarrera soziopolitikoaren emaitza. Horrenbestez, positibismoa guztiz arbuiatzeaz gain, metodo zientifiko arrazionalak ukatzen ditu, oinarri solidoak dituzten *teorietan* (*metakontakizunak*) oinarritutako ezagutza sortu nahi dutenak. Postestrukturalismoak munduari buruzko azalpen unibertuala eman edo *egia* izan nahi duen metakontakizun edo teoria oro baztertzen du; izan ere, teoria bakoitza batzuen esperientzian oinarritzen da, eta beste batzuen esperientziak baztertzen ditu, eta horrek guztiak diskurtso hegemoniko jakin batzuk inposatzea eta desberdintasuna ukatzea dakar²²⁵.

Beraz, ezin da errealitateari buruzko ezagutza sortu; aitzitik, errealitateari buruz dauden diskurtsoak interpreta daitezke soilik, diskurtsoaren analisi kritikoko tresnak erabiliz. Interpretazio ugariko munduan bizi gara, eta interpretazio horiek ere era askotan interpreta daitezke. Postestrukturalista erradikalenentzat, guztiak dira baliozkoak, bat edo beste aukeratzea intuizioaren eta gustuaren moduko elementu pertsonaletan oinarritzen baita; beraz, ez dute interpretaziorik onena bilatu nahi. Hala, positibismoaren objektibotasun-xedeen aurrean, postestrukturalismoak ezagutzaren subjektibotasuna nabarmentzen du. Denboraren joanari eutsiko dioten teoria iraunkorrak sortzeko helburua izan beharrean, garai eta tesuinguru bakoitzaren ezaugarri kontingente eta berezietan eta xehetasunetan jartzen dute arreta.

Postestrukturalismoaren funtsezko postulatu bat, Michel Foucault-enganetik datorrena, ezagutzaren (teoriak, definizioak, etab.) eta boterearen artean harreman estua dagoela da. Hau da, botereak diskurtso nagusi jakin batzuk sortzen eta mantentzen ditu, eta diskurtso horiek, halaber, boterea mantentzen eta zabaltzen dute. Horrek erabat jartzen du zalantzan ezagutza balioetatik eta boteretik bananduta dagoela eta neutrala dela dioten ideia positibista. «Egiarik» ez dagoen arren, *egia-erregimenak*²²⁶ daude, hots, tesuinguru historiko edo soziopolitiko jakin batean egiazat jotzen diren ezagutza motak eta errealitatearen ikuspegiak, boteredun sektoreek (eliteak, komunikabideak, etab.) inposatzen eta nagusi bihurtzen dituztelako, beste ikuspegi alternatibo batzuk baztertzen eta isiltzen dituzten bitartean. Ondorioz, diskurtsoak aztertzen baditugu, hobeto ulertuko ditugu gizartean dauden botere-harremanak, bai eta baztertu diren eta boterearekiko erresistentzian dauden parte-hartzaileekin lotuta daudenen diskurtsoak ere.

²²⁵ SODUPE, Kepa (2001), *La teoría de las Relaciones...*, op. cit., 206.-207. or., hau aipatzen: ROSENAU, Pauline (1990), «Once Again into the Fray: International Relations Confronts the Humanities», in *Millennium: Journal of International Studies*, 19. lib., 1 zk. 221.-222. or.

²²⁶ FOUCAULT, Michel (1979), *Microfísica del Poder*, La Piqueta, Madril.

9.3. Analisisirako tresnak

Postestrukturalismoarentzat, ezinezkoa da munduari buruzko ezagutza objektiboa lortzea; beraz, testuen eta diskurtsoen analisi kritikoa egiteko zenbait tresna erabiltzen ditu mundua interpretatzeko. Bereziki, «egia» unibertsaltzat eman nahi diren diskurtso hegemonikoen analisi kritikoan jartzen du arreta, agerian jartzeko horien auresuposizioak, inkoherentziak, ezkutuko interesak eta boterearekiko loturak. Horregatik, arreta handia jartzen dute hizkuntzan eta sinboloetan.

Diskurtsoen analisia zertan datzan eta nola egiten duen ulertzeko, lehenago azaldu egin behar dira postestrukturalismoak hizkuntzari eta diskurtsoei buruz dituen funtsezko hiru ideia hauek:

- a) Hizkuntzaren izaera performatiboa. Hizkuntzak, errealitatea azaltzeaz eta hori ezagutzeko aukera emateaz gain, eragina du gizarte-errealitatean eta eratu egiten du (adibidez, hizkuntzak munduko politika eratzen laguntzen du).
- b) Diskurtsoen interpretazioen ugaritasuna. Ohiko interpretazioaren arabera, testu batek esanahi finkoa eta iraunkorra du, egilearen asmoak sortu duena hain zuzen ere. Alabaina, postestrukturalismoaren ustez, esanahi eta interpretazio ugari daude; aldakorrek dira eta hainbat faktoreren eraginpean daude: norbanako bakoitzaren baldintzak (generoa, klasea, arraza, etab.), testuinguru historiko eta kulturala eta *testuartekotasun*²²⁷ (*intertextuality*) deritzona, hots, gure aurretiko irakurketak²²⁸.
- c) Diskurtsoaren eta boterearen arteko harremana. Esan dugun moduan, ez dago egia unibertsal eta iraunkorrik, baina testuinguru historiko bakoitzean dauden botere-harremanek diskurtso nagusi jakin batzuk sortzen eta inposatzen dituzte (*egia-erregimenak*), eta diskurtso horiek nolabaiteko egia gisa jarduten dute arlo legalean, moralean, eta abarretan.

Diskurtsoaren analisia egiteko, postestrukturalismoak tresna hauek garatu ditu, nagusiki:

²²⁷ Testuartekotasuna da testu batek beste testu garaikide edo lehenagoko batzuekin duen lotura (agerikoa edo inplizitua), lehenengoaren interpretazioan eragiten duena. Ez dago originala eta bakarra den testurik; aitzitik, testu bakoitza testuen tradizio luze batean oinarritutako testuinguru kulturean sortzen da, eta testuinguru horrek bere egitura, gaia, estiloa eta abar baldintzatzen ditu. Are gehiago, testuinguruak igorlearen ekoizpena baldintzatzeaz gain, hartzaileak testuaz egiten duen interpretazioa ere baldintzatzen du. Hala, irakurleak egiten duen interpretazioa aurretiko beste irakurketa batzuetan oinarritzen da.

ORNAGO, Noé (2015), «Introducción al postestructuralismo...», *op. cit.*,

9.3.1. *Analisi genealogikoa*

Foucaultek asmatu zuen analisi genealogikoa, eta asko erabiltzen da diskurtso nagusien jatorria, garapen historikoa eta boterearekin duten lotura aztertzeko. Sarritan erabiltzen du iraganeko dokumentazioa, eta, horren bidez, argitu nahi du nola, zergatik eta noren eta zer interesen zerbitzuan eraiki eta bihurtu diren nagusi diskurtso horiek. Horri esker, kritikoki azter daitezke gizartean, politikan eta nazioarteko harremanetan errotutako eta funtsezkotzat jotako diskurtsoak (kontzeptuak, instituzioak, jardunbideak, etab.); halaber, agerian jartzen dute: a) diskurtso nagusi horiek kontingenteak direla, hots, testuinguru baten baitan daudela eta beste gehiago egon daitezkeela; eta b) mesede egiten dietela botereari eta eliteei.

Hasteko, NHen alorrean, analisi genealogikoa diziplinaren beraren eraketa eta bilakaera kritikoki aztertzeko erabili izan da. Kritikatu dute diziplina ez zela osatu errealtatearen zenbait interpretazioren arteko eztabaida intelektualek bultzatutako bilakaera teoriko baten bidez; aldiz, ia bere hasieratik postulatu eta gai errealistak inposatuz eta beste ikuspegi batzuk baztertuz eratu zela. Ashley eta Walker egileek, besteak beste, adierazi dute errealismoaren oinarritzko printzipio asko, hainbat hamarkadatan diziplinan funtsezkoak izan direnak, oinarririk gabeak direla; esaterako, estatuen arteko harremanak anarkian eta estatu barrukoak, berriz, ordenan oinarritzen direla dioen ideia²²⁹.

Bigarrenik, analisi genealogikoarekin beste elementu batzuk aztertu dira kritikoki: batetik, diziplinaren barruan oinarritzkoak diren kontzeptu nagusiei (subiranotasuna, estatua, segurtasuna, diplomazia²³⁰, interes nazionala, etab.) buruzko interpretazioen jatorria eta bilakaera historikoa; eta, bestetik, kontzeptu horien sortzearen azpian dauden interesak. Egile askok ikertu dituzte estatu subiranoarekin eta subiranotasunaren printzipioarekin lotutako diskurtsoak eta praktikak; haien arabera, subiranotasuna prozesu historiko jakin baten emaitza da, zeinek ikuskera espezifiko bat eraiki baitu, askotariko toki eta garai historikoetan egon izan diren ikuskera ugarien artetik, aginte politikoari eta bere lurralde-mugaketari, atzerriko munduaren aurka indarra erabiltzeari eta horrekiko harremanei

²²⁹ ASHLEY, Richard (1988), «Untying the Sovereign State: A Double Reading of the Anarchy Problematique», in *Millennium*, 17. lib., 2. zk., 227.-262. or.; WALKER, Robert B. J. (1993), *Inside/Outside: International Relations as Political Theory*, Cambridge University Press, Cambridge.

²³⁰ Der Derian egileak aztertu du nola sortu eta bilakatu den estatuen arteko diplomazia benetako diplomazia bakar modura, eta nola horrek ezkutuan uzten duen estatuak agertu aurretik ere gizarte-taldeen arteko harremanak existitzen zirela. Ikus DER DERIAN, James (1987), *On Diplomacy: a Genealogy of Western Estrangement*, Basil Blackwell, Oxford.

buruz²³¹. Beste egile batzuek nabarmendu dutenez, estatuaren eraikuntzan garrantzi handia dute kanpoko eremua anarkiko modura eta «beste» mehatxu modura agertzen dituzten diskurtsoek. Azken finean, estatua entitate sendo eta unibertsal modura agertzen duen ikuspegi tradizionalaren aurka, postestrukturalistek diote estatua testuinguru historiko jakin baten emaitza dela, eta haren identitateak oinarritzat hartzen dituela barneko ordena eta kanpoko mehatxua kontrajartzen dituzten eta barne-politikako disidentzia isilarazten duten diskurtsoak²³².

Hirugarrenik, analisi genealogikoa kontzeptu espezifiko askotan aplikatu izan da, eta horiei buruzko interpretazio kritiko eta iradokitzaile berriak ekarri ditu. Bada analisi horiek gidatu ohi dituen planteamendu bat: kritika egitea Ilustrazioari eta Modernitateari, arrazoiari, aurrerapenean eta giza askapenean duten fedeari, bai eta horien balio politiko, sozial eta kulturalen ustezko unibertsaltasun eta nagusitasunari ere. Hain zuzen ere, balio horiek Mendebaldekoak dira, egiaz, baina Mendebaldekoak ez diren gizarteetan inposatu dira, gizarteok atzeratutzat, basatitzat eta gutxiagotzat jo ondoren.

Garapenaren kontzeptua aztertzen da, besteak beste. Diskurtso nagusiak prozesu historikotzat jotzen du, historiak aurrera modu linealean egiten duela pentsatuta; hala, horren arabera, gizarteak atzerapenetik modernitatera igarotzen dira. Alabaina, zenbait egileren obrari jarraikiz —Arturo Escobar²³³ antropologoarenari, adibidez—, lan askok diskurtso hori kritikatzeko dute, eurozentrikoa eta inposatzailea delako: Mendebaldetik datorren gizarte-eredua inposatzen du, egia bakartzat jota, eta horretara heltzeko bide bakarra dagoela adierazten du; hala, atzerriko erakundeek eta politikek *Hirugarren Mundu* deritzona azpiratzea justifikatzen da. Ikuspegi honek nabarmentzen du egon daitezkeela beste diskurtso eta garapen-eredu alternatibo batzuk, Hegoaldeko gizartearen ezaugarrietan oinarritzen direnak, mendekotasun-harremanetan beharrezkoak.

²³¹ BERTELSON, Jen (1995), *A Genealogy of Sovereignty*, Cambridge University Press, Cambridge.

²³² DEVETAK, Richard (1996), «Postmodernism», in BURCHILL, Scott eta Andrew LINKLATER (arg.), *Theories...*, *op. cit.*, 198. or.

ESCOBAR, Arturo (1995), *Encountering Development: The Making and Unmaking of World*, Princeton University Press, Princeton (AEB).

9.3.2. *Dekonstrukzioa*

Jacques Derrida²³⁴ filosofoak asmatu zuen dekonstrukzioa edo deseraikuntza: kontzeptuen analisi kritikoa egiteko metodo bat. Batetik, egileak bere testuan kontzeptuari ematen dion esanahia bilatu nahi du, baina, horrez gain, agerian utzi nahi ditu kanpo geratzen diren beste esanahi alternatiboak, kontuan hartuta ez dagoela irakurketa bakar, arrazional eta zuzenik, askotariko interpretazioak baizik.

Derridak eta postestrukturalistek ideia bat dute oinarrian: Mendebaldeko tradizio modernoan, hizkuntza eta diskurtsoak *aurkakotasun bitar* edo kontzeptuen dikotomia multzo batean oinarritzen dira esplizituki zein implizituki; dikotomietako kontzeptu horiek bateraezinak dira (subiranotasuna/anarkia, nazionala/atzeritarrak, garapena/azpigarapena, unibertsaltasuna/partikularitasuna, arrazionaltasuna/emozioak, etab.), baina horietako bakoitzak bere termino antitetikoa behar du zentzua izateko. Aurkakotasun horiek ez dira neutralak eta objektiboak; izan ere, diskurtso hegemonikoak ezaugarri positiboak esleitzen dizkie lehenengoei, eta bigarrenei ukatu, boterearen babespeko uste, parte-hartzaile edo jardunbide jakin batzuk gizartean ezartzeko asmoz. Hala, dekonstrukzioak bi estrategiari jarraitu ohi die: egitura bitarraren hierarkia berriz interpretatzea eta dikotomia horretako mendeko terminoari balioa ematea (adibidez, emozioei balioa emanez, arrazoiaren aurrean); edo banaketa zorrotz horiek ez direla existitzen erakustea, kontzeptu bakoitza bere aurkakoaren mende eta horrek baldintzatuta baitago.

Laburbilduz, dekonstrukzioa da ikerketa-metodo bat zeinak testu baten egitura eta kontzeptuak zatitzen baititu, agerian uzteko horien kontraesanak, desberdintasunak, alboratzeak, teilakatzeak, etab. Hala, agerian jarri nahi du kategoria eta kontzeptu teorikoen esanahiak ez direla zehatzak, uniformeak eta egonkorak, segurutzat jo ohi dugun moduan; izan ere, errealtatea irudikatzeke duten modua desberdina da pertsona bakoitzaren ulermenaren arabera. Era berean, alternatiboak eta desberdinak diren azalpen eta esanahiak aztertu nahi ditu, egitura bitar eta hierarkikoetatik kanpo.

Dekonstrukzioa sarritan erabili izan da analisi genealogikoarekin batera, diziplinaren, eta, batez ere, errealismoaren eta neoerrealismoaren, kontzeptu eta ideia nagusiak aztertzeke (subiranotasuna, segurtasuna, mehatxua, etab.). Hala, Ashleyk *subiranotasun* eta *anarkia* kontzeptu aurkakoak deseraiki ditu; dikotomia horren oinarriko ideiak dio estatuaren

²³⁴ Ikus, adibidez, DERRIDA, Jacques (1989), *La escritura y la diferencia*, Anthropos, Bartzelona (ingeleseko argitalpena, 1973koa); eta DERRIDA, Jacques (1989), *La deconstrucción en las fronteras de la filosofía*, Paidós, Bartzelona.

barruan identitatea eta ordena nagusitzen direla, eta nazioartean, berriz, gatazka; baina ideia horrek talka egiten du errealtatearekin, estatuaren barruan gatazkak baitaude, eta ordena inposatzen baita, disidentzia ezabatuz²³⁵. Bestalde, Walkerrek estatu-subiranotasunaren kontzeptua deseraiki du; kontzeptu horren arabera, banaketa zorrotza dago *barneko* komunitate politikoaren (ordenarekin, segurtasunarekin eta senidetasunarekin lotua) eta *karpokoaren* (anarkia, segurtasun falta, etsaitasuna) artean, eta horrek estatu batzuetako eta besteetako gizakien banaketa baztertzaila eta negatiboa sortzen du²³⁶.

Ildo horretatik, lan askok arreta jarri dute estatuaren identitatea eta nazioarteko harremanak eratzen laguntzen duten zenbait diskurtso dikotomikotan (nazionala/atzerriarra, garatuak/azpigaratuak, zibilizatuak/basatiak, demokratikoak/ez-demokratikoak, biktimak/terroristak, etab.). Diskurtso horietako askok «beste» (Mendebaldekoak ez diren gizarteak) arrotz, behe-mailako eta mehatxu modura eraiki dute, eta horri esker Mendebaldea menperatzearen aldeko politika oldarkorrek justifikatu dira, bai eta gizarte nazionalak kohesionatu, disidentziak mugatu eta botere-egiturak indartu ere²³⁷.

Postestrukturalismoak, unibertsaltzat jo nahi diren metakontakizun guztien aurka egiten duenez, beste ikuspegi kritiko batzuen funtsezko kontzeptuak ere zalantzan jarri ditu; esaterako, gizateriaren *emantzipazio*arena. Kontzeptu hori ilustraziotik dator, marxismoak bereganatu zuen eta, ikusi dugunez, gaur egun Teoria Kritikoak mantentzen du. Postestrukturalistek diotenez, gizateria osoarentzat balio duen proiektu unibertsal moduan agertzen den arren, Mendebaldeko tradizio intelektualetatik eta balioetatik dator, egiaz. Beraz, emantzipazio unibertsalera bideratutako politikek, praktikan, Mendebaldeko balio horiek inposatzea eta desberdintzat jotzen direnak baztertzea eta menderatzea ekarriko dute. Gainera, marxismoarekin gehiegi lotutako kontzeptua da, eta esan behar da korrante horrek ere errepresioa erabili izan duela boterea lortu duenean²³⁸.

²³⁵ Adibidez: ASHLEY, Richard (1995), «The Powers of Anarchy: Theory, Sovereignty, and the Domestication of Global Life», in DER DERIAN, James, (arg.), *International Theory. Critical Investigations*, Macmillan, Londres, 94.-128. or.

²³⁶ WALKER, Robert B. J. (1993), *Inside/Outside: International Relations as Political Theory*, Cambridge University Press, Cambridge.

²³⁷ DALBY, Simon (1990), *Creating the Second Cold War: the Discourse of Politics*, Pin-

EDANS, Jill *et al.* (2010), *International Relations. Perspectives and Themes*, Long-

ow (Erresuma Batua), 3. argit., 147. eta 154. or.

9.3.3. Irudikapen-politiken analisisia

Postestrukturalisten ustez, ezin da errealtate objektibo bakarraz hitz egin, askotariko pertzepzioez baizik. Beraz, ezin da mundua objektiboki eta zientifikoki ulertu; aldiz, diskurtsoa eta hizkuntza aztertuta soilik eza-gut dezakegu, munduaren bitartekari edo irudikapenaren rola egiten baitute horiek. Haien ustez, diskurtso edo kontzeptu baten esanahiak ez dira finkoak eta iraunkorrak, etengabe aldatzen ari diren gizarte-erakuntzak baizik; izan ere, komunikazioaren testuarterkotasuna dela-eta, elementu irudizko eta sinbolikoen loturaren emaitza dira.

Ikuspegi horietan oinarrituta, postestrukturalistek arreta handia jartzen dute ikusteko nola eragiten duten diskurtsoek, komunikazioak eta hizkuntzak munduko politikaren irudikapenean eta, are gehiago, hori interpreta-tzen eta eraikitzen laguntzen duten faktore modura. Horretarako, *irudika-pen-politika* (*politics of representation*) deritzonak aztertzen dituzte, hau da, zenbait parte-hartzailek (estatuak, nazioarteko erakundeak, multinaziona-lak, GKEak, etab.) zenbait alorretan (komunikabideak, publizitatea, diplo-mazia, nazioarteko zuzenbidea, etab.) nazioarteko arazoei buruz eraikitzen dituzten diskurtsoak eta irudikapenak. Nazioarteko agendako arazo handiei buruzko diskurtso edo irudikapen horiek baldintzatu egiten dute gizarteak horiei buruz dituen ulermena eta pertzepzioa. Hala, adibidez, zineman, te-lebistan, literaturan eta musikan Gerra Hotzeko norgehiagoka nuklearri buruz irudikatutakoa aztertu da, irudikapen horrek disuasio nuklearreko politikari buruzko gizarte-pertzepzioa baldintzatu baitzuen. Halaber, zen-bait *gertakizun global* (ustekabeko egoerak, esaterako, atentatu terrorista bat edo hondamen natural bat) komunikabideetan irudikatzeko estrategia aztertu da. Hain zuzen ere, irudikapen hori ez da gertakari horien isla hu-tsa; aitzitik, horiek gertatzea sustatzen du eta erantzun posibleak baldintza-tzen ditu. Beste gai batzuen irudikapena ere aztertu da: terrorismoa, Irango edo Ipar Koreako mehatxu nuklearra, Nazio Batuen bake-operazioak, etab. Era berean, eguneroko bizitzako gai asko aztertu dira (nazioarteko zinema-jaialdiak, bidaietarako gidak, Eurovision jaialdiko bozketa-prozesua, etab.), munduko politikarako garrantzirik ez dutela diruditenak, baina horren fun-tzionamendua hobeto ulertzen lagun dezaketenak²³⁹.

9.4. Jorratutako gai nagusiak

Postestrukturalismoak gai sorta handia aztertu du, baina hauek nabar-mendu behar dira.

²³⁹ CORNAGO, Noé (2015), «Introducción al postestrukturalismo...», *op. cit.*, 232., 240. or.

9.4.1. *Estatu subiranoa eta boterea zalantzan jartzea: erresistentziako eta alteritateko ekimenak*

Egile askok —Walkerrek, esaterako— zalantzan jarri dituzte estatu subiranoa nazioarteko harremanetako parte-hartzaile hegemonikotzat jotzen duten diskurtso nagusiak. Estatu-subiranotasunaren ideia, eta horren ondoriozko barnealdea/kanpoaldea banaketa, esparru politikoa antolatzeko modu zehatz baten emaitza dira; banaketa hori Modernitatean sortu zen, gizateria lurraldearen arabera nahiko modu arbitrarioan zatitzen du, eta indarkeriaren bidez soilik mantentzen daiteke. Baina subiranotasuna eta estatuen lurralde-mugaketa ez dira egonkorrak; aldiz, estatuen identitateak eta interesak ez dituzten beste parte-hartzaile batzuek (talde etnikoak, multinazionalak, sare sozialak, etab.) zalantzan jartzen dituzte. Ondorioz, estatuek etengabe egokitu behar dute, eta tentsioak sortzen dira nazioartean²⁴⁰.

Hortaz, estrukturalistek arreta jartzen dute estatuen subiranotasunak ezarritako mugak zalantzan jartzen dituzten parte-hartzaile eta esparruetan; estatuetatik eta botere-egituretatik kanpo geratzen diren eta haiei aurka egiten dieten subjektu politiko eta ekimen berri askotan. Interes nabarmena dute, adibidez, botere-egituren aurka egiten duten eta erresistentzia jartzen dieten gizarte-mugimenduetan eta herri-ekimen askotan, hala mundu mailakoetan nola eguneroko bizitzan jarduten dutenetan.

Ondorioz, arreta handia jartzen dute *alteritatean* (*otherness*) ere, hots, kultura- eta identitate-aniztasunean²⁴¹. Kultura-aniztasunaren garrantzia nabarmenduz, Giorgi Shani-k ohartarazten du globalizazio neoliberalak berekin dakarrela halako joera homogeneizatzailea egotea eta kultura-aniztasuna ez onartzea; izan ere, oinarritzat hartzen du «berdintasun politiko formala» duen baina identitaterik eta duintasunik ez duen «norbanako atomizatuaren» ideia modernista²⁴².

9.4.2. *Botere hegemoniko globaleko mekanismoak: biopolitika*

Lan postestrukturalista askotan, Foucaulten esparru analitikoak erabilita, botere hegemoniko global baten existentzia aztertzen da, *inpe-*

²⁴⁰ *Ibidem*, 234. or.

²⁴¹ *Ibidem*, 236.-237. or.

HANI, Giorgio (2011), «Securitizing 'Bare Life'. Critical Perspectives on Human Discourse», in CHANDLER, David eta NIK HYNEK (arg.), *Critical Perspectives on Security Discourse. Rethinking Emancipation and Power in International Relations*, London, 56., 58. eta 65. or.

rio bat nahiz lurralderik gabeko mundu mailako beste botere mota bat izan²⁴³. Horien ekarpen teoriko nabarmenenetako bat *biopolitika globalaren* kontzeptua da. *Biopolitika* nazioartean aplikatzean datza; azken kontzeptu hori Foucaultek sortu zuen bere garaian, gobernuak eta botereak nazio mailan zuten rola kritikoki aztertze²⁴⁴. Biopolitika da estatuko instituzioek biztanleria espezie biologiko modura hartuta egiten duten kudeaketa, gizakion bizitzako egoerei eta beharrei aurre egiteko (jaiotza, gaixotasuna, heriotza, elikadura, etab.). Biopolitikak bi mekanismo mota ditu: biztanleen kontrola, haien osasuna eta ongizatea hobetzeko; eta hertsadura, estatuak indarra erabiltzen baitu ordena ezartzeko. Biopolitika baldintzatzen duen faktoreetako bat arrazakeria da; hain zuzen ere, aukera ematen du arrazen arteko bereizketa hierarkikoa egiteko eta muga bat ezartzeko biologikoki lagunak eta etsaiak direnen artean.

Zenbait egilek nazioartean erabili dute esparru analitiko hori. Nabarmenenetako bat Mark Duffield da; haren arabera, *biopolitika globala* da gobernatzeko mekanismo bat, zeina Mendebaldeak erabiltzen baitu bere hegemonia, segurtasuna eta ordena neoliberalak mantentzeko. Mendebaldeak sustatutako zenbait tresna hartzen ditu barne (nazioarteko kooperazioa, estatuen berreraikuntza, egitura-doikuntza programak, kanpo-zorrra kudeatzeko politikak, zigorrak, esku-hartze militarrek, etab.), herrialde periferikoen biztanleriak segurtatzeko, babesteko eta garatzeko; alabaina, tresna horien azken helburua herrialde horietatik datozen mehatxuak (gatazkak, kriminalitatea, terrorismoa, porrot egindako estatuak) geldiaraztea eta nazioarteko ordena mantentzea da²⁴⁵. Hala, kontzeptu hori tresna erabilgarria da gure garaiko gobernantza-sistema global neoliberalaren eta horretako parte-hartzaileen, arauen eta botere-harremanen analisi kritikoa egiteko.

²⁴³ Adibidez: HARDT, Michael eta Antonio NEGRI (2001), *Empire*, Harvard University Press, New York; DILLON, Michael eta Julian REID (2001), «Global Liberal Governance: Biopolitics, Security and War», in *Millenium: Journal of International Studies*, 30. zk., 41.-66. or.; eta JABRI, Vivienne (2007), *War and the Transformation of Global Politics*, Palgrave, Basingstoke (Erresuma Batua).

²⁴⁴ Ikus, adibidez, FOUCAULT, Michel (2007), *El nacimiento de la biopolítica*, FCE, Buenos Aires; FOUCAULT, Michel (1977), *Historia de la Sexualidad. I. lib. La voluntad de saber*, Siglo XXI Editores, Madrid.

²⁴⁵ DUFFIELD, Mark (2004), *Las nuevas guerras en el mundo global. Inseguridad y violencia entre desarrollo y seguridad*, Los Libros de la Catarata, Madrid, 28. or.; DUFFIELD, Mark (2007), *Development, Security and Unending War: Governing the World of Inequality*, Londres, 118. or. eta ondorengoak.

9.4.3. «Beste» mehatxaria, Terrorismoaren Aurkako Gerra Globala irailaren 11ko atentatuaren ondoren eta eszepzionalismoa

Ikusi dugun moduan, postestrukturalismoak arreta handia jarri du etsaiaren irudiak norberaren identitatearen eraikuntzan duen rolean. Ikuspegi horren arabera, sarritan «beste»ari (*Other*) buruzko diskurtso bat sortzen da, kanpokoa (beste estatu edo gizarte batzuk) zein barrukoa izan (talde etnikoak, arraza-taldeak, etab.), desberdin, gutxiago eta arriskutsu modura agertzeko. Diskurtso horiek bi funtzio dituzte: batetik, *bestea* etsai mehatxari modura agertzen duen irudiak defentsa-arloko politika jakin batzuk eta barneko disidentzien errepresioa justifikatzen laguntzen du; bestetik, bestearen ezaugarri negatiboen aldean, norberaren (*Self*) eta identitate nazionalaren irudi positiboa eratzen laguntzen du. Ildo horretan, David Campbell zientzialari politikoa aitzindaria izan da aztertzen zer rol betetzen duten identitate nazionalen kanpoko etsaiari buruzko diskurtsoek, nazional/atzeritar aurkakotasunak eta segurtasunaren aurkako mehatxuek. Zehazki, haren lanak aztertzen du zer funtzio izan zuen Gerra Hotzean SESB belzten eta etsai modura agertzen zuen diskurtsoak, AEBko identitatearen ikuskera jakin baten eraikuntzan²⁴⁶.

Diskurtso nagusiei eta horiek politikan erabiltzeari buruzko lan askok 2001eko irailaren 11ko atentatuak eta horren ondoren AEBk hasitako Terrorismoaren Aurkako Gerra Globala izenekoa aztertu dituzte bereziki. Zehazki, kritikoki aztertu dute Estatu Batuetako gobernuak sustatutako eta komunikabideek errepikatutako diskurtsoa, zeinak terroristak irrazional, basati, gaizto eta motibazio politikorik gabeko moduan agertu baititu, eta estatubatuarrek, berriz, gorrotoarekiko kaltebera, errugabe, gizabide-tsu, abertzale, heroi eta altruista moduan. Diskurtso nagusi horrek «egia-
ren erregimen» zehatz bat edo gertakarien interpretazio jakin bat sortu zuen, eta horrek, bere aldetik, «gu» zibilizatua kohesionatzen eta «bestearekiko» (terroristak eta, hedaturaz, arabiarrek eta musulmanak) banaketa handiagotzen lagundu zuen. Aurkakotasun hori areagotu egin zen, George Bush presidenteak esan zuenean zenbait herrialde «gaizkiaren ardatz» zirela, terrorismoa babesten zutela (Iran, Irak, Ipar Korea, etab.) eta mehatxua zirela, eta ondorioz zilegi zela haien aurkako neurriak hartzea. AEBko gobernuak beldurrean oinarritutako diskurtso horretaz baliatu zen, biztanleek kanpo-politika jakin bat babes zezaten erantzun modura, hots, Afganistango eta Irakeko gerrak, neurri diplomatikoak edo politikoak hartu beharrean. Lan postestrukturalistei esker agerian geratu da sektore ekonomiko eta politiko jakin batzuen interesek butzatu zutela diskurtso hori, zeinak komunikabideak manipulatu baitzituen eta ondorio larriak

²⁴⁶ CAMPBELL, David (1992), *Writing Security: United States Foreign Policy and the Construction of Identity*, Manchester University Press, Manchester.

izan baititu, gerrek eragindako hondamendia, batez ere. Baina, horrez gain, nabarmendu dutenez, gizarte-sektore jakin batzuk politika horien aurka mobilizatu dira eta diskurtso alternatiboak sortu dituzte, nazioarteko harremanen beste ikuspegietan oinarrituta²⁴⁷.

Halaber, postestrukturalistek aztertu dutenez, irailaren 11ko atentatuaren ondorioz, estatuek biztanleria kontrolatzeko erabilitako mekanismoak areagotu dituzte; hala, atzerritarrak mugetan kontrolatzeaz gain (zaintzako teknikak, migrazio-kontrolak, kanporatzeak, etab.), bertako herritarrak ere kontrolatzen dituzte (aireportuetako segurtasun-mekanismoen berriak, kamerak kalean, datuen analisia, etab.). Bereziki garrantzitsuak dira irailaren 11ko atentatuaren ondoren terrorismoaren aurka ezarri diren lege berriak. Giorgio Agamben italiar filosofoak azaltzen duenez, *salbuespen-egoera*ko diskurtsoen bidez justifikatu dituzte lege eta neurri horiek; historikoki, diskurtso horiek gerra-egoeran eta segurtasunaren aurkako mehatxu larria zegoenean erabiltzen ziren, eta, halakoetan, estatuak pertsonen bizitzari eta heriotzari buruz erabakitzeke eskubidea zuen. Hala, Terrorismoaren Aurkako Gerra Globalaren esparruan, estatuek kontrol biopolitikoko neurriak ezarri zituzten (torturak, ezkutuko espetxeak, Guantanamo espetxea, etab.), eta giza eskubideak eta sistema demokratikoetako askatasunak urratu zituzten horien bidez²⁴⁸.

9.5. Ekarpinak eta kritikak

Hasieran garrantzi gutxikoa izan zen arren, postestrukturalismoak eragin nabarmena izan du gero NHeetan, beste gizarte-zientzia batzuetan bezala. Diziplinako joerarik heterodoxoena da, bai eta diziplinaren korrante nagusien eta horien oinarri arrazionalisten aurka bortizkien borrokatu dena ere. Hain zuzen ere, korrontearen helburua ez da errealitatea azalduko duten teoriak sortzea (izan ere, gezurrezko egiak lirarteke); aitzitik, errealitateari buruz askotariko interpretazioak daudela erakutsi nahi du, bai eta diskurtso nagusien eta boterearen artean dagoen harremana agerrarazi ere. Horrekin, askotariko ekarpen garrantzitsuak egin ditu maila ontologikoan, nazioarteko bizitzaren arloan orain arte gutxi landu diren dimentsioak aztertu baititu; baita maila epistemologikoan ere, diskurtsoari

²⁴⁷ McMORROW, Aishling (2017), «Introducing Poststructuralism», in McGLINCHEY, Stephen, Rosie WALTERS eta Christian SCHEINPFLUG (arg.), *International Relations Theory*, E-International Relations Publishing, 58.-61. or. <https://www.e-ir.info/publication/international-relations-theory/>

²⁴⁸ AGAMBEN, Giorgio (2004), «El estado de excepción», *Archipiélago*, 60. zk., 101.-110. or.; AGAMBEN, Giorgio (1998), *Homo Sacer. El poder soberano y la nuda vida*, Pre-Textos, Valentzia.

eta horrek boterearen interesekin duen harremanari buruz egindako analisi sakonen bidez; eta maila metodologikoan, zenbait tresna erabili baititu, esaterako, dekonstrukzioa eta analisi genealogikoa, zeinei esker diskurtso hegemonikoen azterketa kritiko, asmotsu eta intelektualki sakonak egin baitaitezke. Hala, ikuspegi eta analisi berritzaile eta originalak ekarri ditu, eta esan behar da desafiatazailleak direla hala diziplinarentzat nola nazioarteko *statu quo*arentzat.

Landu dituen gaiek bi lerro nagusi izan dituzte. Batean, zenbait arloren hausnarketa kritikoa egin da; esaterako: diziplinako zenbait egileren (Makiavelo, Marx edo Weber, esaterako) oinarri teorikoak, eta diziplinaren joera nagusien postulatua, batez ere (neo)errealismoarenak, baina baita joera postpositibista batzuenak ere (adibidez, Teoria Kritikoaren *emantzipazioaren* ideia). Beste lerroan, berriz, zenbait kontzeptu teoriko edo gai garrantzitsu aztertu dira; esaterako: segurtasuna, subiranotasuna, estatua, identitatea, alteritatea edota desberdintasuna, eta nazioarteko harremanetan dauden sartzeko/baztertzeko mekanismoak. Horien analisi kritikoak zalantzan jarri ditu horien ohiko esanahiak, eta agerian jarri ditu askotariko testuinguru historiko eta sozialekin lotutako beste interpretazio batzuk. Horrek erronka intelektual handia dakar berekin; izan ere, zurtasunak zalantzan jartzen ditu, ideia errotuak eta finkoak ezegonkortu eta, horien ordean, etengabe jariatzen eta eraldatzen diren askotariko ikuspegiak bildu. Diskurtsoak, instituzioak, politikak eta abar eraikuntza sozial kontingenteak dira, itxura jakin bat dute testuinguru jakin batean, baina aldatu eta desberdinak izan daitezke; hala, beste errealitate batzuetan pentsatzeko aukera ematen du horrek.

Oro har, postestrukturalismoak ekarpen garrantzitsuak egin ditu NHetan gutxi aztertu izan diren bi alderditan. Bata *botere*-harremanak dira, hala gizarteetan (desberdinkerietan, gizarte-kontrolko politketan eta abarretan oinarrituak) nola nazioartean; hain zuzen ere, munduko ordena neoliberallean botere-harreman desorekatuak mantentzen dituzten biopolitika globaleko egiturak eta mekanismoak lantzen ditu. Hala, horri esker, hobeto ulertzen dira boterea erabiltzeko dauden askotariko moduak, esaterako, eliteen interesei mesede egiten dieten diskurtso nagusien bidez. Are gehiago, Cornagok dioen moduan, korranteak jakintzaren eta boterearen arteko harremana nabarmendu duenez, agerian jarri du NHen diziplina akademikoak munduko politikaren botere-guneekin duen konplizitatea bera²⁴⁹.

Nabarmentzen duen beste alderdia da zein garrantzitsuak diren nazioarteko harremanetan hainbat *identitate* mota, hala taldekoak nola ba-

²⁴⁹ CORNAGO, Noé (2015), «Introducción al postestructuralismo...», *op. cit.*, p. 21.

nakakoak, esaterako, kultura, etnia, arraza, generoa, etab. Ildo horretan, zalantzan jarri du marxismo ortodoxoa, ikuspegi erredukzionista duelako, korrante horren azterketek interes ekonomikoetan eta klase-identitatean soilik jartzen dutelako arreta, alde batera utzita beste identitate-iturri batzuk. Aldiz, postestrukturalismoak nabarmentzen du ekonomiarekin lotutako beste gizarte-zapalkuntza mota batzuk daudela, hala nola sexu eta arrazagatiko zapalkuntzak. Hartara, interes handia du identitate- eta kultura-aniztasunean, heterogeneotasunean eta heterodoxian, bai eta diziplinak tradizioz alde batera utzi dituen errealitateetan, esaterako, gizarte-sektore baztertu eta esplotatuetan, edo Mendebaldekoak ez diren komunitate eta kulturetan (horregatik, antzekotasun handiak ditu geroago ikusiko ditugun ikuspegi postkolonialekin). Izan ere, munduari buruzko ikuspegi asko daudela egiaztatzeak ezagutza eta botere mota ortodoxoak eta hegemonikoak ahultzen laguntzen du.

Hain zuzen ere, botere-harremanen eta identitate-heterogeneotasunaren inguruko interes horrek eraginda, garrantzia ematen die hegemonikoekiko alternatiboak diren pertzepzio eta diskurtsoei, bai eta ezarritako ordenaren aurkako disidentzia eta erresistentziako gizarte-ekimenei ere. Ikerketaren bidez, jakintza berriak sortu eta diskurtso alternatiboek bidexa zabaldu nahi die, gizarte-subjektu baztertuak eta haien jardunbideak indartzeko. Horregatik, postestrukturalismoak lotura eta eragin nabarmena du azken hamarkadetan sortu diren gizarte-mugimendu eta borroka berrietan (feminismoa, gutxiengoaren eskubideen aldeko mugimenduak, etab.).

Alabaina, postestrukturalismoak kritika asko eta gogorak ere jaso ditu. Hasieran egin zizkioten kritiketako batzuk zehaztu eta malgutu egin dira gerora, hein batean korrantea bera hasierako muga eta gehiegikeria batzuk zuzentzen joan delako. Hona hemen kritika horietako batzuk:

- a) Korronteko testuen konplexutasuna hala hausnarketak oso abstraktuak direlako, nola hizkuntza batzuetan erretorikoegia eta ulergaitza delako. Ohiko hizkuntza akademikoa logikan eta kontzeptuen zehaztasunean oinarritzen da; aldiz, postestrukturalismoak sarritan jotzen du hizkuntza estetikora eta erretorikora, ñabarduraz, paradoxaz eta ironiaz beteta, probokazio intelektuala egiteko.
- b) Zehaztasun metodologiko falta; izan ere, hizkuntza apainduegi eta polemiko horren azpian, froga enpirikoak falta dira eta gizarte-zientzietako oinarritzko kanonak gaitzesten dira²⁵⁰, eta horrek guztiak nazioarteko arazoan azalpen zientifikoak ematea eragozten du. Ildo horretan, Cornagok argitzen du postestrukturalismoak ez

²⁵⁰ JARVIS, Darryl S. L. (2000), *International Relations and the Challenge of Postmodernism: Defending the Discipline*, University of South Carolina Press, Columbia (S.C.).

duela bazterten errealitatearen oinarri enpirikoa bera, ez eta jakintzaren oinarri guztiak ere, batzuetan kritikatu izan zaion moduan; aldiz, edozein oinarritzeren asmoak (egiazkoa, egokia, eta abar izateko) sakon eztabaidatzeko beharra defendatzen du²⁵¹.

- c) Interesa alderdi diskurtsiboetan, ahaztutako eta garrantzirik gabeko gaietan eta ustekabeko gertakarietan jartzen duenez, arreta gutxi jartzen du gaur egungo munduko arazo handietan (esaterako, sistema kapitalistaren eraldaketak, gerra eta pobrezia); horregatik, korrante horretako lanek ez dute balio praktikorik. Kritika hori postestrukturalismoaren hasieran egin zen, baina, Cornagok dioenez, geroago korrante horrek akats hori zuzendu eta ahalegin handia egin du funtsezko gaiak jorratzeko, esaterako, ekonomia politiko globalaren gaiak (multinazionalen gorakada, merkatu finantzarioen erregulazioa, etab.)²⁵².
- d) Kritika erradikalak egiten dituen arren, ez du proposamenik egin, ez eta proiektu sozial edo politiko alternatibo eta eraldatzailekin konpromisorik hartzen ere. Zenbait sektorek kritika hau egin zuten: errealitateari buruz unibertsal edo egiazkotzat jo nahi den interpretazio oro bazterten duenez, eta askotariko pertzepzioak onartzen dituzenez, nolabaiteko erlatibismoan erortzen da, hots, ez du erreferenterik gizartearen eraldatzeko²⁵³, eta horrek pasibotasun eta desmobilizazio politikoa eragiten ditu. Kritika horretan nabardurak egin behar dira. Egia da joera honek lehentasuna ematen diola kritika teorikoari, praxiaren aurrean, eta egileetako batzuek eszeptikoak diruditelako gizartearen eraldatzeko aukerari dagokionez. Alabaina, estrukturalismoa ez da pasiboa zapalkuntzako egitura eta politiken aurrean. Kontua da alde batera uzten dituela Modernitatearen kontakizun handiak, esaterako, aurrerapena eta emantzipazioa (ikus beheko taula), eta ez duela proposatzen eredu alternatibo bakar eta unibertsalik. Aldiz, *erresistentziako* askotariko guneak eta dinamikak aztertzen eta lehenesten ditu. Gune eta dinamikok oso ezaugarri desberdinak izaten dituzte lekuaren eta testuinguruaren arabera. Hala, balantze orokorra eginda, ondoriozta daiteke postestrukturalismoak elementu kritiko asko eman dituela nazioarteko harremanak beste era batera interpretatzeko eta, horri esker, bidea zabaldu diela gizartearen eraldatzeko parte-hartzaile eta ekiteko modu berri.

²⁵¹ CORNAGO, Noé (2015), «Introducción al postestructuralismo...», *op. cit.*, 237. or.

²⁵² CORNAGO, Noé (2015), «Introducción al postestructuralismo...», *op. cit.*, 237. or.

²⁵³ ROSENAU, Pauline (1990), «Once again into the fray...», *op. cit.*, 85. eta 88.-

Postestruturalismoaren/Postmodernismoaren ezaugarriak, Modernitatearen ezaugarriekin alderatuta

Modernitatea	Postmodernismoa/Postestruturalismoa
Arrazionalismoa, zientifismoa, positibismoa.	Erreflexibismoa, erlatibismoa, postpositibismoa.
Errealitate bat dago «hor kanpoan».	Errealitatea gizarte-craikuntza da.
Egia absolutua eta unibertuala. Metakontakizunak.	Ez dago egia bat, egia asko baizik. Kontakizun asko eztabaidan.
Teoria bateratua eta enpirismoa.	Ez dago gutzia azal dezaketen teoriarik.
Ezagutza neutroa da balioei dagokionez; metagarria da eta errealitatea azaltzen du.	Teoria guztiak norbaitentzat eta zerbaiterako dira. Boterea duenak erabakitzen du ezagutza; kontaktuzun bakoitzak interes jakin batzuk adierazten ditu, eta deseraiki daiteke.
Ikertzaileak behatu egiten du, eta subjektutik bananduta dago.	Ikertzaileak behatu egiten du, eta subjektuarekin elkarrekin dago.
Ezagutza erabiltzea arazoak konpontzeko, ordena eta oreka sustatzeko.	Ezagutza erabiltzea hausnarketa kritikoa egiteko, erresistentziak jartzeko, naturalizatuta dagoena (benetakotzat jotzen dena) ezgonkortzeko.
Historiaren ikuskera lineala: gizateriak eboluzionatzen eta aurrera egiten du.	Historiak etenak ditu: aurrerapena eta eboluzioa ez daude aurrez hautatuta.
Kategoriak, kontzeptuak eta esanahiak finkoak eta zalantzarik gabekoak dira.	Kategoriak, kontzeptuak eta esanahiak ezgonkorak eta aldakorak dira, eta muga lausoak dituzte. Hegemonikoei kritika.
Jakintza zentralizatu eta eskudunak.	Jakintza lausoak, subertsiboak eta inkonformistak.
Enfasia jartzen du homogeneotasunean, koherentzian, uniformetasunean, jarraitutasunean, iraunkortasunean eta egonkortasunean.	Heterogeneotasuna, zatiketa, inkoherentziak, desberdintasunak, alternantziak, ezgonkortasuna eta etenak goraiatzen ditu.
Enfasia jartzen du kontrolan, hierarkian, kohesioan, zentralizazioan eta ordenan.	Enfasia jartzen du erresistentzian, aurkakotasunean, deszentralizazioan, desordenan eta subertsioan.
Kausazko harremanak eta aurrikusgarritasuna.	Zoria eta kontingentzia.
Dikotomia zehatzak: gorputza/adimena, barnealdea/kanpoaldea...	Hibridismoak, anbiguotasunak, naturalizatutako dikotomiak zalantzan jartzea.
Identitate finkoak, bateratuak.	Identitate jariakorak, askotarikoak.
Estatu nazioa eremu pribilegiatu modura.	Tokikoa eta globala goraiatzea: «glokala».
Botere zentralizatua, bateratua eta autoritarioa. Goitik beharako antolaketa.	Botere lausoa, barreiatua, zatikatua. Behetik gorako antolaketa.
Makropolitika.	Mikropolitika.
Hizkuntzak errealitatea deskribatzen eta izendatzen du. Egilearen baitan dago azken interpretazioa.	Hizkuntzak errealitatea eraikitzen du. Askotariko interpretazioak. Barthes: «Heriotza egileari. Biba irakurlea».
Liburu inprimatuaren nagusitasuna jakintza-sistema modura. Produktu amaituak eta baimenduak.	Hipermediak inprimatutako materialaren mugak gainditzen ditu, testuarekotasun digitala. Garatzen ari diren lanak, birziklatuak, berriz landuak.

Oharra: Hemendik hartua, aldaketa batzuekin: ALMEIDA, Erica Simone (2011), *A crítica pós-moderna/pós-estruturalista nas Relações Internacionais*, Universidade Federal de Roraima, Boa Vista (Brasil), 32. or.